

AURKEZPENA

2011 Barometroa




Gizarte Gaien Behatokiak
Observatorios de Asuntos Sociales

Immigrazioaren Behatokia
Observatorio de Inmigración




1. Arazoaren pertzepzioa

Zure ustez, gaur egun, zein dira Euskadin ditugun 3 arazo nagusiak?
(Gehienez ere 3 erantzun: bat-bateko erantzuna)



- Euskadiko gizarteak ez du arazotzat hartzen immigrazioa, % 2,4k bakarrik bota baitu beren kasa hura dela Euskadiko arazo nagusia. Guztira, % 10,7k bakarrik aipatu du beren kasa arazotzat.
- Aipatzekoa da immigrazioa arazotzat hartzen dutenen ehunekoa % 15,4tik % 10,7ra jaitsi dela 2010etik. Beherakada nabarmena da hori, are gehiago kontuan izanik krisialdi ekonomiko batean murgilduta gaudela.
- Izan ere, horrelako egoeretan, immigrazioaren gaineko iritzi txarrak gora egin ohi du.
- Inkestari erantzun diotenenek beren kasa bota dituzten hiru erantzunak kontuan izanik, Euskadiko herritarren % 10,7k aipatu du immigrazioa arazoa dela. Langabezia, berriz, % 86k aipatu du; arazo ekonomikoak, % 29k; ETA, % 17k; klase politikoak, % 14k; eta pentsioak, % 11,9k.


Txartel honetan ageri diren arazoetatik, zure ustez, zein dira Euskadiko hiru arazo nagusiak?*



- Immigrazioa arazotzat hartzen duten galdetu dietenean, berriz, inkestari erantzun diotenen % 14,9k adierazi du baietz.
- Gainera, % 4,2k aipatu du Euskadiko arazo nagusia dela, erantzun bera beren kasa bota dutenek baino bi aldiz gehiagok.
- Arazo sozioekonomikoak dira oraindik ere gizartearen kezka-iturri nagusia, eta, bereziki, langabezia eta bizitzaren kostua.


*Aurten eman dugun gaien zerrenda ez da aurreko urteetakoak. Europako datuekin konparatzeko EUROSTATEk eskaintzen duen gaien zerrenda erabiltzea erabaki dugu.

Gaia aldatuko dugu. Pertsonalki zein hiru arazok ukitzen zaituzte gehien?
(Gehienez ere 3 erantzun: bat-bateko erantzuna)



- Inkestari erantzun diotenen % 0,8k bakarrik aipatu du immigrazioa beren arazo pertsonal nagusia dela. Guztira, berriz, Euskadiko herritarren % 5,6k bakarrik hartzen du immigrazioa arazo pertsonaltzat.
- Ehunekoa ia hiru puntu txikiagoa da 2010ekoa baino, % 8,2tik % 5,6ra jaitsi baita.
- Langabezia eta arazo ekonomikoak dira inkestari erantzun diotenek gehien aipatu dituzten arazo pertsonalak: hurrenez hurren, % 56,2k eta % 34,7k aipatu ditu.


Konparazioa aurreko barometroekin: zeintzuk dira Euskadiko hiru arazorik garrantzitsuenak?
(Gehienez hiru erantzun: erantzun espontaneoak)



- Barometro honen emaitzak eta aurrekoenak konparatzen baditugu, ikusiko dugu gutxiagok hartzen dutela ETA arazo pertsonaltzat, eta nabarmen gehiagok langabezia.
- Immigrazioa arazotzat hartzen dutenen ehunekoa nabarmen jaitsi da, eta 2009koa eta 2010ekoa baino txikiagoa da.

2. Elkarbizitza


Zure ustez, EAEn, bertako eta atzerriko biztanleen arteko harremanek hobera egin dute azken urtean, okerrera egin dute, ala berdin daude?



- Oro har, Euskadiko gizartearen iritziz, bertako herritarren eta atzerritarren arteko harremana ez da aldatu azken urtebetean. Hain zuzen ere, Euskadiko herritarren % 57,5ek uste du hori.
- Nolanahi ere, gehiagok (% 23,6k) uste du harremanak okerrera egin duela hobera egin duela baino, % 13,7k uste baitu hobera egin duela.
- Euskadiko herritarren eta atzerritarren arteko harremana aldatu ez dela uste dutenen ehunekoa 9 puntu jaitsi da 2008tik: 2008an, % 66,5koa zen; 2009an, % 62,6koa; eta, 2010ean, % 57koa. Harremanak okerrera egin duela uste dutenena, berriz, 9 puntu baino gehiago igo da: 2008an, % 14,6koa zen; 2009an, % 19,3koa; eta, 2010ean, % 26koa.

3. Kultur-aniztasunaren kudeaketa


Kultura-aniztasunari buruzko zenbait adierazpen esango dizkizut. Esan iezadazu horietako bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra



Printzipioz, Euskadiko gizarteak iritzi ona du kultur aniztasunari buruz:

- Euskadin beste talde etniko batzuek egoteak kultur aberastasunik ekarri duen galdetu, eta % 52,3k baietz erantzun du, eta % 23,8k, ezetz; 2010ean, berriz, % 45,1ek erantzun zuen baietz, eta % 45,9k ezetz.
- Inkestari erantzun diotenen % 57k uste du etorkinen ohitura erlijiosoek ez dutela jartzen arriskuan gure bizimodua, eta % 24k, baietz. 2010ean, berriz, jende gehiagok uste zuen gauza bat zein bestea, % 53,9k uste baitzuen etorkinen ohitura erlijiosoek ez zutela jartzen arriskuan gure bizimodua, eta % 20,9k, baietz. Erantzuna argi ez dutenen ehunekoak, azkenik, behera egin du.
- Euskadiko herritarren % 61,7k ez du uste atzerritarrek beren kultura eta ohiturak utzi behar dituztenik guztiz onartuak izateko. 2010ean, berriz, % 57,8 ziren iritzi berekoak.


Euskadin bizikidetza hobetzeko zenbait aukera emango dizkizut. Esan iezadazu horietako bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra



- Aurreko urteetan bezala, % 67k uste du bertakoek ez dutela ahalegindu behar etorkinen ohitura eta tradizio batzuk ezagutzeko eta haietara egokitzeko. 2010ean, % 56,9k uste zuen hori.
- Inkestari erantzun diotenen % 67,1ek uste du etorkinek hemengo legediaren kontrakoak diren ohitura erlijiosoei eta kulturei uko egin behar dietela guztiz onartuak izateko. Ehuneko hori 18 puntu txikiagoa da ia 2010ekoa baino.
- Bestalde, aurreko urteetan bezala, % 88,9k uste du bertakoek ez dietela uko egin behar beren ohiturei eta tradizioei.
- Euskadiko herritarren % 79,8k uste du etorkinek bertakoen ohiturak eta tradizioak hartzeko ahalegindu behar dutela.

4. Eragin sozialak


Esan iezadazu horietako adierazpen bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra



- Euskadiko herritarren % 64,2k uste du etorkinek etekin gehiegi ateratzen dutela gizarte-babeserako sistematik. Ehuneko hori 5 puntu txikiagoa da ia 2010ekoa baino.
- Inkestari erantzun diotenen % 44,6k uste du etorkinek zerga gutxiago ordaintzen dituztela erabiltzen dituzten zerbitzuak kostatzen direna baino, eta % 17,2k, berriz, kontrakoa.
- Oro har, Euskadiko gizarteak uste du atzerritarrak egoteak segurtasunik eza eta delinkuentzia ekarri duela; % 46,1ek uste du hori; 2010ean, berriz, % 55,7k. Ingurumari horretan, inkestari erantzun diotenen % 59,8k uste du atzerritarrak egoteak herritarren segurtasunari kalte egiten diola; 2010ean, berriz, % 61,4k uste zuen gauza bera.

5. Zerbitzu eta eskubideak

Orain bertakoen zenbait eskubide aipatuko ditugu. Zure ustez, Euskadin bizi diren etorkinek ere baldintza beretan izan behar lituzkete eskubide horiek?




Zenbait zerbitzuri eta eskubideri buruz galdetu, eta zera erantzun dute Euskadiko herritarrek:

- 2010ean baino jende gehiago dago atzerritar guztiak osasun-zerbitzuak erabiltzeko eta seme-alabak hezteko eskubidea izatearen alde: atzerritarrek osasun-zerbitzuak erabiltzeko eskubidea izatearen alde, % 2,8 gehiago, eta seme-alabak hezteko eskubidea izatearen alde, % 7,7 gehiago.
- Gainera, 2010ean baino jende gehiago dago atzerritarrei laguntza juridikoa, gizarte-laguntzak, berriz elkartzeko bideak, bozkatzeko eskubidea eta babes ofizialeko etxebizitza bat ematearen alde: hurrenez hurren, % 34,8, % 3,3, % 6,4, % 2,8 eta % 3,9 gehiago dira atzerritarrei eskubide horiek ematearen aldekoak.


6. Immigrazio politika

Zure ustez, zer politika-mota litzateke egokieran atzerritar langileen kasurako?




- Euskadiko herritarren % 11,1 (aurreko urteetan baino gehiago) etorkinak sartzeko legezko inongo oztoporik ez jartzearen alde dago, eta % 6,4, berriz, etorkinak sartzea nolana galaraztearen alde.
- Inkestari erantzun diotenen % 76,4k uste du etorkinei sartzen utzi behar zaiela lan-kontraturik badute.
- Ehunekoak gora, ehunekoak behera, beste inkesta eta azterketa askok adierazten dutenez, Euskadiko gizartearen zati handi batek berme nahikotzat du oraindik ere lan-kontratua, segurtasuna ematen baitio eta susmo txarrak desagerrarazten baititu.

Esan iezadazu horietako adierazpen bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra




- Badirudi Euskadiko gizartea ondo aurre egiten ari zaiola krisiari. Izan ere, gehiengoak (% 60k) uste du lan gabe gelditzea ez dela nahikoa lanean ari diren atzerritarrak kanporatzeko; 2010ean, berriz, % 54,7a zen iritzi berekoa.
- Euskadiko gizartea zorrotzagoa da indarrean dagoen legedia ez betetzearekin, herritarren % 40 inguruk uste baitu delituren bat egiten duten atzerritarrak kanporatu behar direla. Edonola ere, gizartea toleranteagoa da 2010ean baino, inkestari erantzun ziotenen % 47,1ek uste baitzuen gauza bera orduan.

Zure iritziz, zer egin beharko luke Gobernuak etorkin "irregularrekin"?




- Oro har, Euskadiko gizarteak atzerritarrek lana izatearekin lotzen du oraindik ere atzerritarren onarpena eta, ildo horretan, lana dutenak erregularizatzearen (lana dutenei bizilekua izateko baimena ematearen) alde dago.
- Hala ere, iritzi hori dutenen ehunekoa txikixeagoa da 2010ean baino: 2010ean, inkestari erantzun ziotenen % 61ek lotu zituen lana eta erregularizazioa, eta, 2011n, berriz, % 58,6k.

Tolerantzia-indizearen bilakaera 2007 eta 2011 artean




BPGren urtetik urterako aldaketa-tasak (%)




Immigrazioarekiko tolerantzia-indizearekin lotutako aldagaiak

Tolerantzia-atalase txikiena duten pertsonen profila	Aldagaia	Esangura	Tolerantzia-atalase handiena duten pertsonen profila
65 urtekoak eta hortik gorakoak	Adina	0,001	18 urtetik 44rakoak
Ikasketarik gabekoak eta lehen eta bigarren mailakoak dituztenak	Ikasketak	0	Goi-mailako unibertsitate-ikasleak
Katolikoak, praktikanteak ala ez	Erljioa	0	Agnostikoak, ateoak edo erlijioa axola ez zaienak
Erdaldunak	Hizkuntza	0	Euskaldunak
Hilean 1.800 euro, gehienez	Diru-sarrerak	0	Hilean 3.000 eurotik gora
Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin gustura ez daudenak	Egoera ekonomikoa	0	Gaur egun duten egoera ekonomikoarekin gustura daudenak
Etxeko lanetan aritzen diren pertsonak	Lanbidea	0	Ikasleak eta lanean daudenak
Estatus baxua	Estatua	0	Estatus altua
Eskuinekoa	Ideologia	0	Ezkerrekoa, zentro-ezkerrekoa eta ezkerrekoa
Espainiar nazionalistak	Abertzaletasuna	0	Euskal abertzale moderatuak
Espainiar soilik, eta euskaldun baino gehiago espainiar sentitzen direnak	Identitate-sentimendua	0	Soilik euskaldun eta espainiar baino gehiago euskaldun sentitzen direnak

Talde handien tolerantzia-indizea




Talde nagusiek tolerantzia-indizearen aldetik lortutako puntu kopuruaren bilakaera




1. Toleranteen puntu kopurua handixeagoa da 2009koa eta 2010ekoa baino, eta 2008koaren oso antzekoa.
2. Anbibalenteen puntu kopurua nabarmen handiagoa da azken bi urteetako baino, eta are 2008koa baino handiagoa.
3. Uzkurren puntu kopurua 2008koaren eta 2010ekoaren oso antzekoa da, eta 2009koa baino txikiagoa.

Talde nagusien tamaina



1. Toleranteen taldea txikiagoa da, askoz ere txikiagoa. Hau da, puntu asko lortu ditu jarrera anbibalente samarra zutenak taldetik irten direlako eta jarrera tolerante argia zutenak gelditu direlako taldearen barruan. Ildo horretan, anbibalenteen taldea handitu egin da, eta toleranteen taldearenaren antzeko jarrera hartu du.
2. 2010ean toleranteen taldean zeudenen ia erdia anbibalenteen taldera igaro da 2011n: Euskadiko gizartearen % 43,64 ziren lehen toleranteak, eta % 23,50 baino ez dira orain.
3. Gainera, anbibalenteen taldeko kide asko uzkurren taldera igaro dira, eta, horren ondorioz, 15 puntu handitu da uzkurren taldea: % 20 baino txikiagoa zen lehen, eta ia % 35ekoa da orain.

Talde nagusien tamainaren bilakaera




Laburbilduz,

- Toleranteen taldeak jarrera eta iritzi irekia du oraindik ere, taldekide asko anbibalenteen taldera igaro direlako.
- Anbibalenteen taldea 20 puntu handitu da toleranteei esker eta, horren ondorioz, toleranteagoa da orain. Hala ere, horrexegatik, zera gertatu da:
- Anbibalenteen taldeko multzo handi bat (15 puntu), uzkurren taldearen oso antzeko jokoarak, iritziak eta jarrerak zituenez gero, uzkurren taldera igaro da eta uzkurren taldea nabarmen handiagotu du, baina horrek ez du ekarri uzkurren taldea toleranteagoa izatea orain.

Ondorio nagusiak:

1. Datuak ikusirik, Euskadiko gizarteak jarrera anbibalentea du atzerritar etorkinei buruz: herritar batzuk oso tolerante eta irekiak dira, eta beste batzuk, berriz, uzkur samarrak.
2. Datuak 2010eko barometrokoekin konparatzen baditugu, ikusiko dugu Euskadiko gizarteak jarrera hobea duela, toleranteagoa dela eta muga gutxiago ezartzen dizkiela atzerritarrei.
3. Euskadiko gizartea lanpostuarekin lotutako immigrazio-politiken aldekoa da oraindik ere, beste azterketa eta ikerlan batzuek ere adierazten dutenez: etorkinek lan-kontraturik badute, herritarren % 76,4 atzerritar etorkinei sartzen uztearen alde daude.
4. Euskadiko gizarteak zenbait estereotipo faltsu eta aurreiritzi negatibo ditu oraindik ere atzerritar etorkinei buruz; lehen baino gutxiago, baina. Edonola ere, neurri batean gutxienez, badirudi estereotipoek eta aurreiritziek ez dutela zerikusirik egitateekin. Bereziki kezagarria da atzerritar etorkinak eta herritarren segurtasunik eza lotzen dituzten estereotipoak eta aurreiritziak.
5. Atzerritar etorkinak egoteagatiko zalantza- eta errezelo-iturri nagusietako bat da ea Euskadiko gizarteak ongizateari eutsiko dion.

6. Biztanleria hiru talde nagusitan banatzen badugu, 2011n aldaketak izan direla ikusiko dugu. Toleranteen taldeak jarrera eta iritzi irekia du oraindik ere, taldekide asko anbibalenteen taldera igaro direlako. Anbibalenteen taldea, berriz, 20 puntu handitu da toleranteei esker eta, horren ondorioz, toleranteagoa da orain. Hala ere, horrexegatik, zera gertatu da: anbibalenteen taldeko multzo handi bat (15 puntu) uzkurren taldera igaro da, baina horrek ez du ekarri uzkurren taldea toleranteagoa izatea orain.
7. Hala eta guztiz ere, biztanleria zenbait aldagai soziodemografikoren arabera baztertuta dagoela sumatu dugu. Besteak beste, nabarmentzekoa da prestakuntza-maila, zenbait azterketak adierazten baitute aldagai horren araberkoa dela bazterketarik handiena eta aldagai hori dela egokiena biztanleriaren jarrerak eta jokabideak iragartzeko. Badira beste aldagai aipagarri batzuk: batetik, nork bere egoera ekonomikoari buruz duen iritzi subjektiboa, lana, jarduera ekonomikoa eta familiaren hileko diru-sarrera garbiak –aldagai horien araberkako diskriminazioak adierazten du gizartea beldur dela atzerritar etorkinekin lehiatu behar duelako lan egiteko– eta, bestetik, erlijiozaletasuna –karga dogmatikoa du aldagai horren araberkako diskriminazioak, eta gizartearen aldaketekiko malgutasun txikia adierazten du–.



ikuspegi@k

Gizarte Gaien Behatokiak
Observatorios de Asuntos Sociales

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**ENPLEGU ETA GIZARTE
GAJETAKO SAILA**

Gizarte Gaietako Sailburuordetza
Immigrazio eta Aniztasuna
Kudeatzeko Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES**

Viceconsejería de Asuntos Sociales
Dirección de Inmigración
y Gestión de la Diversidad